

“GUZTIZ EDERREKO ZELAIA”

Nahi zuen tokira joateko zeukan presa oztopo bilakatu zitzaion, eta une batetik bestera distantzia handiagotzen zen. Nekaturik tolesten ari zitzaizkion hanka haiek, ez ziren beti mendian ibiltzen ohituraturik zituen berberak. Kezkak, zenbaitetan, geldiarazi zuen, eskuak hanketara eramateko. Eguneroko begiradaz ingurunera begiratu zuen, paisaiaren edertasunean pausatuz; baina bere begiak ez zeuden eguneroko bakeaz beterik, iluntasunez gainezka baizik.

Atean emandako kolpeak mugiarazi zuen. Oso berandu zenez, harritu egin zen holako orduan bizilagunak leihoetara hurbiltzen zirela ikustean. Zertaz ari ziren hizketan begi sakonetako emakume haiek? Bere jazkeraz erreparatu zen, dotore jantzia baitzegoen. Zapi zuri batez igurtziz musuko orbainen bat azalarazten saiatu zen. Hamaika begik begiratzen zioten, eta hatzamarraz etengabeki seinalatzen zuten. Dena den, jendea lo zegoen, eta leihoak itxita. Berriro jo zuen. Atea eztiki zabaldu zen. Neska lirain baten grazia nabarmendu zen. Igoneren esku zuriek, askatasuna lortu berria duen txori urduriaren dardaraz, mutilaren lepoa heldu zuten.

- Landor! -esan zuen alaiki-

- Ez al didazu deus galdetu behar? -Erantzun zion gudariak isilune baten ondoren-

- Zer nahi duzu galdetzea, nire ondoan zarela? Zu zara nire bihotza betetzen duen erantzunik goxoena.

- Aurreko egunetan elur egin zuen mendi gailurretan! -Azaldu zion gazteak- Eta pagadietan hasi dira hosto berriak jaiotzen. Jaioberrien kolorea dute eta eskurik finenak ikuitzean urratu egingo lituzke. Bihar euria egingo duela uste dut! Eta zuri, zer iruditzen zaizu?

- Landor, zergatik kontatzen didazu dena hori? Zutaz nahi nuke jakin. Zurbil zaude. Hotza hezurretaraino sartu ote zaizu?

- Gerra neketsua da. Igone, bildur naiz galduko ote dugun. Etsaia oso tresneria egokiaren jabea da eta gu...

- Baina guk Euskadi maite dugu, eta maitasun hori nahikoa da dena horiei irabazteko. Ez al duzue Amalurraz gogoratzean kemen haundiagoz borrokatzen? Aberriaren aldekoa



Igone eta Lander euskal erromeria batean ezagutu ziren.

ez den gerrak ezin du heroirik eman. Nik zuetaz pentsatzen dut maiz, eta euskal lurraren alde borrokatzeagatik sentitzen duzuen poza igartzen dut. Bere amalurraren oroimenak gerlarien gogoetak pailakutzen baititu.

- Bizitzak balore haundiagoa dauka edozein aberrik eskain dezakeena baino, eta edozein amalur baino askoz xarmangarriagoa da.

- Horrenbesteko mingostasunez esan zuenez gero, neskak bere hauskortasunaren zirrara sumatu zuen, baita bere errairik ezkutuenetan ere. Bere begi zorrotzek berehalaxe ezagutu zuten Landorren barrena.

- Duda-mudatan murgildu zara Landor. Galdurik zaude!

Hori aditzean Landorren ezpainetatik esanahirik gabeko hitzak, gaizki moldatutako aitzakiak,... kanporatu ziren. Bildurra zen nagusi bere baitan. Ikara hobeto esanda. Ez hainbeste maite zuen euskal aberriak, eta ezta aurrean zuen neska zoragarriaren irriparrak ere, ez zuten barruan zeraman amesgaiztoa desbideratzea lortu. Alde egin nahi zuen. Ihes egin, Euskal Herriko zelai ederrak utziz. Beste garaietan, amets politak egin zituen, eta askatasun egarriak gidatu egin zituen bere pausuak.

Amodioa erromeria batean ezagutu zuen, Igone aurkitu zuenean. Guztiz Ederreko zelai berdean iruleek dantza egin zuten. Elizako dorrearen itzalak, iruleen kolore biziei begira zeuden haurrak babesten zituen. Ilunabarra zen, eta aintzinako urteek, euskal soinen sekretua ezagutzen zuen txistulariari aterbe ematen zioten. Basondo leizezuloko harringarrek, txirulen modura, soinu liluragarria ateratzen zuten, ur tanta gardenen etengabeko isurketaren ondorioz.

Eta ilunabar hartan, Landor oholtzara igo zen. Segurtasunez jantzirik, hizlariak aurkeztu egin zituen eta gero Euskadiz mintzatu zen. Inoiz ez zuen goxokien kulunkatutako sehaskak holako hitz ederrak aditu. Zumarren azpian eta harri txintzar eta goroldioen artean jaiotako iturriei lapurtutako hitz gardenak baitziruditen. Edo sagarloreetatik sortu-



Landorrek bere burua danborrez eta ikurriñez jositako desfile baten barruan ikustean, heroi bat zela pentsatu zuen.

Etsaiak oso hurbil zeuden, hurbilegi agian, metrailak eta kainoien zartakoek birrindutako baserri hurbiletan.



tako usain ederrez beteriko soroen berdetasunean heldutakoak, edo Bizkaiko Itsasoko bazterretan, arratsalde lasaietan pentsaturikoak hobeto esanda.

Neska lirainaren bihotzean amodioa piztu zen. Aberriak uztartu zituen. Honela igaro ziren egunak, gerra Euskadiko semei dei egin zien arte. Eta Landorrek bere burua danborrez eta ikurriñez jositako desfile baten barruan ikustean, heroi bat zela pentsatu zuen. Baina Akondia mendiko hotzak iritsi ziren, eta beraiekin batera bideak estaltzen zituen elurra. Zein eta nolakoa zen gudarien kemena hainbeste jaten zuten elurte horiek gordezten zuten sekretua? Tabolak, haizea eta euriaren egoitzak ziren.

Landorrek, parapetoetan errebelatzen ari zenean, ez zekien zer zen bere barruan sentitzen ari zena. Etsaiak oso hurbil zeuden, hurbilegi agian, metrailak eta kainoien zartakoek birrindutako baserri hurbiletan. Gaueroko ixiltasunean euren elkarrizketak adi zitezkeen. Borrokaldi latzak espero ziren eta gudariak zain zeuden. Landor arras izuturik zegoenez gogoeta etsia tratatu zitzaion buruan. Pinu artean zegoen eta sirimiri fin batek bustitzen zuen. Luebakiak urruti egon arren, fusil hotsak eta artileriaren danbatekoak garbiki aditzen ziren. Zeren alde ari gara borrokan? -Pentsatu zuen koldarkeriak jota- Aizto zorrotz batez moztu zituen beste gudarietako lotzen zituen hariak eta mendi beherantz abiatu zen lasterka. Ez pozik, baina bai lasaiki, egindakoa azaldu zion Igoneri. Berarekin ados egongo zelakoan, erantzunaren zain zegoen.

- Agur Landor! - bota zion neska- Ez dut zure koldarkeriaz ezer gehiago jakin nahi. Maite zintudan bere aberria defendatzen zuen gudari gisa. Euskadiren aldeko borrokan hilko bazina, ez zintudake inoiz ahaztuko, baina desertor gisa meziprezatzen zaitut nire duintasun zauritu oroz.

- Landor isildu zen. Baina isilune baten ondoren, honela erantzun zion:

- Besterik ez al duzu esateko? Itxaro nuen zure begiak malkotan ikusi. Ez al nauzu zure ondoan nahi? Zure amodioa ez zen orduan oso haundia izango!

- Ez Landor! Orain nigar egingo banu, eleberri baterako gidoia emanen nizuke. Eleberri arrosetan errealitatetik urrun dauden gauzak gertatzen dira. Zer nahi duzu atea kolpe batez ixtea ala? Begira ezazu zein gozoki itxiko dudan!

Eta itxi egin zuen. Landor Usobeltz izeneko kale aldera abiatu zen. Sarritan begiratu zuen atzerantz Igone damututa begiratzen harrapatu nahian. Ibilgailu batek eraman zuen mutila Kaieder-eraino. Kai barrenean untiak kulunkan ari ziren, olatuekin dantza eginez. Bi arrantzaleren itzala igeritan ari zen uraren argitasunean.

- Gabon lagunak! -esan zuen Landorrek- Nahi duzuenean abiatzeko pronto nauzue.

- Makinistaren zain egon behar dugu! -Erantzun zuen marineletako batek- Sareak zabaldu ditut gutaz kontura ez daitezten -segitu zuen- Zazpi ordu barru edo, Iparraldean egongo gara.

Landorri, itxoiten ari zen minutu haiek orduak iruditu zitzaizkion. Hotzak zegoen. Eta Igonen askotan abesten zuen kanta zaharra etorri zitzaion gogora:

“ITSASOA LAINO DAGO

BAIONAKO BARRARAINO...”

Egun berriaren argia bere alde egongo zen Lapurdin. Libratu egingo zen betirako, parapetoetako bildur eta erreketen baletatik. Irripar batek ferekatu zuen bere harrokeria. Dena ari zitzaion espero zuen bezain ongi irteten. Atharratzen edo Uztaritzan igaroko zituen egunak inolako ikararik gabe. Zertarako Landor izena?

Aldatu egingo zuen: Karlos, bai horixe Karlos izenaz berbataiatuko luke bere burua. Ez ote dakar izen honek garai bateko erregeen oihartzunik? Eta gerra amaitzean, bere herrira itzuliko zen. Herritarrek berriro estimatuko zuten, langilea baitzen oso. Etorkizun handia zuen. Zer axola berari euskal gazte-riak isuritako odola? Gudari franko erori ziren zerraldo guda zelaietan, eta bakea lortzeko askoren bizitzen sakrifizioa beharko zen. Landorrek itzulera-
ren unean zuen gogo. Gogoeta korapilatsu hauek izan ziren bere itxarotaren filmerik bortitzena.

- Itsasora! -Oihu egin zuen pozaren pozez- baina marine-

Parapetoetako borroka gero eta latzagoa zen. Eta Landorren bihotzean koldarkeria zen nagusia.





Hauxe da "Gudari"-ren aldizkariburua. Aldizkari hauetan argitaratu ziren Lauaxetaren ipuin hauek.

lek arronto harriturik begiratu zioten. Zer gertatzen zitzaien? Sare eta arrantzu tresnen artean burua atera zuen. Kaia ixten duen murru gainean, bi gizonez inguraturiko emakume baten itzala ikusi ahal izan zuen.

Agindu zehatzekin lehorreratzten behartu zituzten. Landor aho zabalik zegoen. Gaueko argitasun urria eta itsasoko haizearen artean gizon-emakumeen talderantz begiratu zuen. Emakume hura Igone zen eta bi ertzainekin zegoen! Eta ertzainek Landor detenitzen zuten bitartean, Igone, urruneko oihartzun eta zurrumurruen artean honela mintzatu zen:

*"Orain arte maite izan dudan mutilari utziko
nioke joaten, baina inoiz ez hilzorian dagoen
aberriari uko egiten dion euskaldunari"*

Eta begirada itsasoko urdintasunean finkatuz eta haizeak bere ileak harrotzen zituelarik, honako hau esan zien ertzainei:

*"Han, Gorbeian, Igiriñaotik hurbil, eta elurraren
azpian, lore zurbil dardarti batzuk jaioko
dira, gero erreketek eta falangistek zapalduko
dituztenak. Gerra bukatzen denean, lore horiek
ekarriko dizkidan mutilarekin egingo dut
dantza. Guztiz Ederreko zelai berdean!"*

LAUAXETA
GUDARI - 6.zenbakia
Bilbo, 1937ko apirilak - 24
(erdaraz argitaratua)
euskaratzailea: Joseba Zabarreko